

Carme Salvador

INPUNITATEAREN KONTRA



BIZIRAUTEN BORROKAN

"Guillem semea lapurtu zidatenean hartu nuen kontzientzia politikoa. Ordua arte senarra zen inpunitatearen kontra borrokatzen zuena. Egia esan, azken urteetan justizia egitearen aldeko borrokan eta semea galtzeak eragin didan minean hain sartuta egon naiz, oroitzapen gutxi dudala. Oso gogorra izan da, senarra depresioan erori zen eta nolabait familia aurrera ateratzeko indarra nik izan nuen hasieran. Gero, aldiz, ni erori nintzen eta senarrak eta alabek lagundu zidaten altxatzen. 26 urte eta erdi pasa ondoren, aldiz, bizitza baikortasunetik bizitzen ikasi dut".

"Guillemen memoriaren borrokari eusten diogu eskuin muturraren gorakada eteteko"

Eskuin muturreko gazte talde batek 1993ko apirilaren 11n labankadaka hil zuen Guillem Agulló gazte antifaxista, Montanejos (Valentzia). Gurasoen borroka abiapuntu hartuta, Agullóren memoria aldarrikatzen duen filma estreinatuko du 2020an *La Lluita Continua* egitasmoak. Duela 26 urte eta erdi semea lapurtu zioten Carme Salvador, Agullóren ama, ekarri dugu Argi Kontrara.

 SAIOA BALEZTENA  JORDI BORRÁS

Zer deritzozu *La Lluita Continua* egitasmoari?

Kontuan hartuta gaur egun gazte asko daudela gure semearen erailketa bizitu ez zutenak, egitasmoa garrantzitsua da, gu heldu ezin garen jende askorengana iritsiko delako. 26 urte pasa diren arren, ezinbestekoa da gure borrokaren oihartzuna egitea.

Filmaren ekoizleek familiaren ikuspegia aukeratu dute abiapuntutzat.

Erabakigarria izan da abiapuntu hori aukeratzea. Pertsonalki, bitxia iruditzen zait, beti esan izan baitut nik ez dudala merezi aitorenpenik egitea... Tira, semea lapurtu zidatenetik, borrokan ez bazen, ez nuke beste modu batera bizitzen jakingo. Semea hil zutenetik nire erronka izan da bere bizitza eta heriotza politikoak izan zirela aldarrikatzea: Guillem bere ideietatik hil zuten, eta justiziak zein parte interesatuek saldu nahi izan zuten gazteen arteko liskar bezala. Hori deseraikitzea ezinbestekoa da.

Hitz egin dezagun epaiketaz. Nola bizitu zenuen?

Beti gogoratuko ditut hiltzaileak il-tzatzen zizkigun begiradak. Inongo lotsarik gabe. Argi utzi zuen eginda-koaz erabat harro zegoela. Auzitegiak ezin hobeki tratatzen zuen gainera, eta guk hasieran esperientziarik ez genuenez, justizia egingo zela sinetsi genuen. Baina epaiketaren lehen hiru egunak pasa zirenean konturatu ginen auziak itxura txarra zuela.

Auzipetu bakarra Pedro Cuevas izan zen. Sententziak hamasei urteko kartzela zigorra ezarri zion arren, lau urte espetxeratuta egon ondoren aske utzi zuten.

Bai, eta gerora, Alianza Nacionaleko [espainiar alderdi neonazia] zerrendaburua izan zen, justiziari erakutsi zion idealak zituela, eta ondoren, Panzer auzian epaitua izan zen. Baina ez zuten epaitzen jarraitu nahi izan, ikertua izateko arrazoirik ez zegoe-la argudiatuz. Gaur egun bizitzen ari garena ikusita, askotan galdetzen diot nire buruari nola uler daitekeen nire



"BELDURRA GALTZEN LEHENAK GU IZAN GINEN, BERA ERAIL ONDOTIK EZ GENUELAKO BERTZERIK. NORK BORROKATUKO ZUEN BESTELA?"

semearen hiltzaileak lau urteko kartzela zigorra betetzea bakarrik eta, aldiz, Kataluniako politikari espetxeratuek zigor handiagoak izatea, bozkatzea ahalbidetzeagatik. Antza, hori da demokrazia Espainian...

Uste duzu justiziak irakurketa desberdinak egiten dituela, batzuen eta bertzeen ideologiaren arabera?

Noski, Altsasuko gazteekin ere antzeko zerbait gertatu da. Gertutik jarraitu dugu. Gure elkartasuna dute, eta badakigu zeinen gaizki pasatzen ariko diren. Gertakari berdina desberdin ikertzen dute batzuen eta bertzeen artean. Justizia oso zorrotza da batzuekin eta malaguegia beste batzuekin.

Gauza bera gertatuko litzateke gazte antifaxista batek eskuin muturreko gazte bat hilko balu?

Inola ere ez. Gure semearen auzia isildu nahi izan dute, baina biktima polizia edo eskuin muturrekoa denean beste jarraipen bat izaten dute epaiketek, zalantzarik gabe. Berriz diot, Altsasuko gazteen epaiketa ikusi besterik ez dago.

Azken urteetan Guillem Agulló borroka antifaxistaren ikur bilakatu da, Valentzian eta Espainiako Estatuan.

Egia esan, Valentzian ez zen interesik egon hasieran, eta aldiz, Katalunian bai. Mugimendu hau erabakigarria izan da gu bakarrik ez sentitzeko. Hein batean, Guillemen borroka bizirik mantendu da. David Fernándezek esaten duen bezala, gure semea mugimendu antifaxistaren hazia izan zen.

Anitzetan erran izan duzue seme bat galdu zenutela, baina hamaika jaio direla Herrialde Katalanetan. Babestuta sentitu al zarete urte hauetan guztietan?

Lehendabiziko urteetan ez. Bakarrik sentitzen ginen. Baina poliki-poliki, mugimendua pizten hasi zen eta beldurra bandoz aldatu zen. Are gehiago, beldurra galtzen lehenak gu izan ginen, bera erail ondotik ez genuelako bertzerik. Nork borrokatuko zuen bestela?

Eta erakundeek babestu zaituztete?

Inola ere ez. Azken urteetan saiakeraren

bat egon da kontzientzia garbi edukitzeko. Valentzian eskuinari zaion beldurra handiegia da oraindik, eta beraz, ez dute sekula gai honetan sartu nahi izan.

Justizia egiteko beharra duzue?

Auzi hau ezin hobeki apainduta utzi zuten garai hartako eskuin muturreko epaitegiek, beraz ez dute justiziarik egingo. Baina guk gure borroka irabazi dugu, gaur egun edonork dakielako gure semearen hilketa politikoa izan zela, eta ez gazteen arteko liskar bat, sententziak adierazi zuen bezala. Guillemen memoriaren borrokari eusten diogu eskuin muturraren gorakada eteteko. Askok gara eta garrantzitsua da elkartuta egotea.

26 urte pasa dira. Eskuin muturra goraka doa munduan zehar, Espainiako Gorteetan 50 diputatu baino gehiago dituzte. Zer deritzozu?

Beldurra ematen du, baina azken finean, beti egon dira hor: orain VOX alderdia da, lehenago PP edo Ciudadanos. Berdinak dira, eta gorrotoaren mezua ere aspalditik zabaldu nahi izan dute. Orain, egia da, ausartago ari dira. ●